

2011an soldata murrizketak bikoiztu egingo dira

Aurten murrizketarik larriena abenduan sufrituko dugu, baina 2011an murrizketak urte osoan zehar jasango ditugu. 2010ean batz bestea 1.000€ inguru kenduko badizkigute, 2011an 1.800€ inguru izango da lapurtuko diguten diru kopurua

Jakina da 2010eko ekainetik aurrera zerbitzu publikoetako langile guztiok, horien artean irakaskuntza publikokook, gure soldatetan murrizketa sufritu dugula. Orain arte hilerok, irakaskuntzako kolektibo eta maila ezberdinen arabera, 17€ (soldata txikieneko langileei) eta 166€ (soldata handienekoei) inguru kendu badizkigute, abenduko aparteko ordainsarian, abenduko extran alegia, funtzionarioei 409 eta 727€ bitarte kenduko dizkigute. Honek esan nahi du 2010ean, kolektibo eta maila ezberdinen arabera eta antzinatasunak kontutan izanda, guri dagozkigun 118 eta 1.718€ bitarte ordaindu gabe utziko dizkigutela (irakaskuntzako langile guztien batz bestekoa kontutan izanda 1.000€ inguru langileko).

Datu hauek gogorak badira, berriki Mahai Orokorreko bileran aditzera eman zigutenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak 2011rako murrizketak ia bikoiztu egingo ditu. Beraz aurreikusi dezakegu, urtariletik aurrera, hileroko murrizketei abenduan egingo diguten antzeko murrizketa gehituko dietela 2011ko aparteko bi ordainsariei. Hau honela, 2011an soldata murrizketak 237-tik 3.129€ra joango dira soldata osoaren arabera (irakaskuntza publikoko langile guztien batz bestekoa kontutan izanda 1.800€ inguru langileko).

Honi bere garaian inposatu ziguten ITZARRI BPEG (EPSV)-n aplikatu diguten murrizketa gehitu behar zaio. 2010ean 187 eta 566€ bitarte (350€ batz bestea) eta 314 eta 955€ bitarte (650€ batz bestea) 2011an.

Berriro ere gogoratu beharrean gaude, CC.OO. eta UGT-k irakasle funtzionarioentzat sinaturiko akordioak, Zapaterok Kongresuan bere "austeritate" neurriak ezagutzera eman eta Euskal Herrian Sanz eta Lópezek bere egingo zituztela ezagutu ondoren sinaturiko akordioak, honetarako txeki zuria eman ziola jaurlaritzari.

Behin eta berriro salatzen ari garen moduan, esan beharrik ere ez dago, guztiz onartezina dela inposatu diguten soldata murrizketa. Guk inola ere sortu ez dugun krisi baten erantzule egiten gaituzte eta guri kenduriko diruarekin eta era guztietako murrizketa neurriekin (soldatak, lanpostuak, lan baldintzak, gastu soziala, prestazioak, pentsioak, iruzur fiskala, enpresa irabazien eta kapitalaren gaineko zerga jaitsiera, etab.) berriro ere, erantzule nagusi diren banketxe eta kapital pilatzaile eta espekulatzailen negozioa elikatzen ari dira.

Lapurreta honi eta hartzen ari diren neurriei aurre egiteko bideak ireki behar ditugu, inposatzen dizkiguten neurri hauen guztien bidegabekeriaz gure ingurukoak konbentzitu, antolatu eta erantzuteko prestatu.

Ikus 2010-11ko murrizketa taulak:

- [Murrizketa taulak 2011 Irakasle Funtzionarioak](#)
- [Murrizketa taulak 2011 Lan-legepeko irakasleak eta Heziketa Berezia](#)
- [Murrizketa taulak 2011 Lan-legepeko Zerbitzuetako langileak](#)